

OIALUMEko

BILERA



03/10/20
02/10/20
(UICS)

Egilea:

Hernaniko Udal Artxiboa (Jesús Mari Gómez)

Iturriak:

- *Oialume dantzaleku mitikoa. Urnietatik dator notizia*, 216 zenbakia, 2009ko azaroaren 27a.
- Goñi Iradi, Iñigo: *Oialume dantzalekuak 60 urte bete ditu gorputzak mugiarazten. Hernani 2003*. Hernaniko Udala, Hernani, 2003.
- Hernaniko Udal Artxiboa.
- Otxandorena Noble, Zipri: *Hernaniko Musika Eskola. La música como vocación (continuación)*. *Hernani 2001*. Hernaniko Udala, Hernani, 2001.
- El Diario Vasco, 13 jun. 2008.
- *BERRIA*, 2008-06-11.

Antolatzailea:

Hernaniko San Joan Konpartsa (2010eko ekainaren 27a).

OIALUMEko **BILERA**

Oialume baserria, baserri izateari utzi gabe, Martindegi auzoko taberna eta denda ere bazen, baina 1940ko hamarkadaren hasieran, baserriko *terrazapean* bertan, *bilerak* eta gero dantzaldiak eta kontzertuak egiten hasi ziren... eta ia zazpi hamarkada pasatu ondoren, dantzaleku hari bizirik iraunarazteko ahaleginetan dabil Barrenetxea familia.



Pedro Mari Beldarrain, Joxe Tolosa, Patxi Beldarrain, Bartolome Intxausti, Joxe Mari..., Joxe Ormazabal, Manolo Arozamena, Josetxo... eta Joxe Mari Beldarrain Oialumen.

Oialumeko *bilera* eta/edo Oialume dantzatokia mitikoa da; gure ingurune honetan gutxi izango dira ezagutzen ez dutenak. Azken 70 urteotan, gutxi gorabehera, belaunaldi desberdinetako gazteek urria eta ekaina bitarteko igande eta jai egunetako arratsaldeak pasatzeko leku bakarra zuten: Oialume. Bikote asko sortu ziren bertan eta, bitxikeria modura, familia bereko hiru belaunaldi bertara joan izan direla esan dezakegu.

Barrenetxeatarrengana joan gara Oialumeko historia eta istorioak ezagutzera. Axentxio Barrenetxea eta, bereziki, Joanita Agerrezabalaga izan dira, besteak beste, gure solaskideak. Testigu paregabeak ditugu. Joanita Oialumen bertan jaio zen orain dela 86 urte, eta bertako tabernan urte luzez aritu zen lanean; Axentxiok... zenbat emanaldi eskaini ote ditu bertan!

DENA APUSTU BATENGATIK HASI ZEN

Gerra Zibilaren ondoren, 40ko hamarkadaren hasieran, San Jose egun batean, martxoaren 19an, egin zen apustu batean du bere abiapuntua Oialumeko *bilerak*. Pultsu apustua (halterofilia antzekoa) jokatu zuten Orkolaga baserriko Felix Aranburuk, *Felix Orkolakuak*, eta Juanantoneneako Joxe Erdoziak, *Joxe Patasek*. Javier Barrenetxeak, garai hartan Oialumeko jabea zenak, apustua girotzeko Markos Zubeldia soinu-jole hernaniarra eraman zuen: “*Felix Orkolakuak eta Joxe Patasek apustua egin zuten beraien artean, ea nor zen gehiago pultsoan. Apustua Oialumen egin zen, eta giro hobea izateko, soinuarekin alaitzea pentsatu genuen*”. Sekulako giroa izan zen.

Izugarri gozatu zutenez, apustua ikustera joan zirenek igandero antzeko zerbait antolatzeko eskatu zieten jabeei eta hauek hitza hartu eta halaxe egin zuten. Horrela sortu zen Oialumeko *bilera*.

Baina, **noiz izan zen apustu hura? Noiz hasi zen, beraz, Oialumeko *bilera*?** Zer urtetan izan zen aipatutako norgehiagoka eta, aldi berean, Oialumeko *bilera* noiz hasi zen jakiteko iturri desberdinetara jo dugu, eta egia esan, aurkitu ditugun erantzunak ez datoz bat.

Iturri batzuek erakusten digute 1943ko martxoaren 19an jokatu zela pultsu desafio hura. Udal Artxiboan ikusitako dokumentazioaren arabera, aldiz, beste data bat azaltzen zaigu:

San Sebastián,... 9 [de febrero de 1944]

Gobernador Civil

Sírvase comunicar urgencia este Gobierno bailes aire libre tengan lugar esa villa Barrios o dentro término Municipal indicando nombres organizador Nombre lugar donde se celebre y fecha autorización...

Hernaniko Udalak Gobernadoreari erantzundakoa hauxe da:

*Los **bailables al aire libre** que tienen lugar en este municipio, son los siguientes:*

Dos organizados por el Ayuntamiento: uno, en el casco de la población; otro, en el barrio de Lasarte.

Uno particular organizado por Vicente Liceaga Errasti, en el barrio de Ereñozu;

Otro, también particular, organizado por don Juan José Aguirrezabala Pagoaga, en la finca rústica “Lizarchueta”.

*Todos **autorizados por mi autoridad...**; los dos primeros, de siempre; el tercero desde junio de 1942 **y el cuarto desde abril del mismo año.***

...

Hernani, 11 de febrero de 1944.

El Alcalde-accdtal.,

Luis Urcelay

Gainera, bertakoek, Ascensio Barrenechea eta Cristina Aguerrezabalagak, 1977an eta 1980an aurkeztutako eskaeretan, eraikuntza berri bat egiteko kontsultetan, honako hau aipatzen dute.

El que suscribe Ascensio Juan Barrenechea Aguerrezabalaga,...

*EXPONE que teniendo proyecto de construir un pabellón en terrenos adosados a su casa núm. 33 de la entidad Martindegui "Cº Oyalume" para destinarlo a una sala de baile por ser insuficiente la que tiene en la misma terraza de dicho caserío, que tiene permiso concedido por V. S. **desde el año 1942 a nombre de mi abuelo don Juan José Aguerrezabalaga...***

...

*Cristina Aguerrezabalaga Lete, ..., viuda de D. Javier Barrenechea Aizpurua, ...
EXPONE.*

Que desde abril de 1942 se celebra en el Barrio de Oyalume y en la temporada de Octubre a Junio, baile público en los días festivos, según autorización del Ayto. que V. I. preside, comunicado al Excmo. Sr. Gobernador Civil de Guipúzcoa el Once de Febrero de 1944. Que...

Que con este mismo criterio se pretende proseguir...


Azken batean, estreinakoa 1942an edo 1943an izan zela ere, igande eta jai egunetako planak egiterakoan, Oialume inguruko eta urrunagoko gazteentzat gune garrantzitsua izan da azken zazpi hamarkada hauetan... *Oialumen bezain ondo, inon ez!*

Bilera, eta gero dantzalekuko kontzertuak, ez ziren urte osoan egiten. Pilarika inguruan, urriaren erdi aldean, hasten ziren emanaldiak; eta Ereñotzuko San Antonio jaien aurreko asteburuan egin ohi zen azkenekoa, ekainaren erdi aldera (dena den, Martindegí auzoko festetan ere, Sanferminetan, egiten zen dantzan bertan).

Hasi zenean terrazazpin izaten zen *bilera* edo festa arratsaldeko bostetatik bederatzietara. Gerora zazprietatik hamarrek arte irauten zuen.

Edonola ere, gazteek Oialume erreferentzetzat har zezaten musika derrigorrezkoa izan da beti.

Oialumeko lehendabiziko soinu-jolea Markos Zubeldia izan zen; bost duro pagatzen zizkieten.



Esan bezala, Oialumen soinu jotzen aritu zen lehenengoa hernaniar bat izan zen: Markos Zubeldia Sarasola *Beltza*¹: “*Felpazko zaku berde batean ekartzen zuen soinua eta bukatzeko ordua ailegatzen zenean, akabo! Nahiz eta dirua eskaini ez zuen berriro jotzen*”.

Markos Zubeldiaren ondoren hainbat soinu-jole izan dira bertan: Ramon Amenabar, Manolo Amenabar, Diego Bikondoa (Mikel Bikondoa famatuaren aita), Satur Agirre², Felix Sanz (Iñaxio Larrageta bateria-jotzailearekin) eta Jose Luis Ponce. Hauen artean bereziki gogoratzekoa da Ramon Amenabar, soinu-jole itsua. Donostiarra zen, autobusean Ergobiaraino etorri eta bertakoak esku-erremolke batekin bila ateratzen zitzaizkion; hurrengo egunean autobuseraino laguntzen zioten etxera itzul zedin.

Jose Luis Ponce andoaindarrari gertatutakoa gogoratzen dute Barrenetxeatarrek: euria gogotik ari zuen batean, errekatxoko urak gora egin eta soinu jotzen segitu omen zuen berari zihoakiola konturatu gabe.

Markos Zubeldiak *bukatzeko ordua ailegatzen zenean, akabo! Nahiz eta dirua eskaini ez zuen berriro jotzen*. Bai, ordea, gerora joandako soinu-joleek, tabernan bertan jarraitzen baitzuten jotzen: orduan bertakoek ere, Joanitak eta Iñaxik (tabernan 14 urtez lana egin zuena) festan ibiltzeko aukera izaten zuten.

FABOREZ? ... A ZE KALABAZA PILA!

Musika erreferente izanik, zertara joaten zen jendea Oialumera? Dantzatzera eta...

Zer musika entzun zitekeen? Garaiaren arabera: une bakoitzean modan zeuden piezak jotzen ziren Oialumen. Hasiera-hasieratik 1980ko hamarkadaren erdi aldera arte, “*ez orain bezala, gazteek dantza egiten zuten*”. Eta batez ere, neskek; mutilek tragoxka batzuen ondoren lotsa galdu eta hasten ziren dantzan, sueltoko piezak gehienetan. Orduan animatzen ziren: lehenik begira egoten ziren gustuko neska bat edo ikusi arte eta topatzen zutenean, dantza eskatzen zioten: *Faborez?* Eta, kasu askotan, erantzuna: *ez!... ezetz!... A ze kalabaza pila!* jaso zuen batek baino gehiagok... Ze arrakasta izan zuten ikusita, batzuk zerbait edatera eta ogitartekoak jatera joaten ziren tabernara. Edo, berriro petrilean eseri eta gustuko beste neskaren batek baiezkoka noiz emango geratzen ziren.

Manolo Sagarnak pasadizo bat kontatu digu. Dantza eskatu eta eskatu zebilen mutil batek kalabaza besterik ez omen zuen jasotzen. Lagunak, aitzitik, etxeko giltzak erakutsiz, moto edo kotxe batenak bailiran, kristoren arrakasta lortzen omen zuen. Hori ikusita, mutila gauza bera egiten hasi omen zen baina *ez, ezetz...* berriro ere kalabazak. Orduan lagunak esan omen zion: *kendu itzazu aurretik galtzetan dituzun pintzak!* Nahiz eta giltzak erakutsi, bizikletaz joana zela antzematen zitzaion.

1 **Markos Zubeldia Sarasola *Beltza* (1901-1944).** Soinu handia eta txikia jotzen zituen. Hernanin eta inguruan, Oialumen kasu, askotan aritu zen. Nekaezina zela esaten zen: behin, Martuteneko Odriozola etxean, atsedetik hartu gabe, 13 orduko “kontzertua” eskaini omen zuen. Beste batean, nahiz eta aulkia eta oholtza hautsi eta bere soinu eta guzti lurrera erori, bere lanean jarraitu zuela diote garaiko kronikek.

Bat-batean hil zen 1944ko abenduaren 22an; bezperan, San Tomas egunean, Donostiako Victoria Eugenia antzokian emanaldi bat eskaini zuen.

2 **Saturnino Agirre Perurena *Xatur* (1933-2002).** Familiaz zetorkion afizioa bere aitona, bere aita eta bere osabak soinua jotzen baitzuten. Aranoko apaizarekin solfeoa ikasi zuen. Soinu handia (Pepe Andoain eta Manuel Yaben izan ziren bere irakasleak) nahiz txikia jotzen zituen. Oialumera denboralditxo batean joan zen baina ezaguna, batez ere, Tilosetako dantzaldian egin zen: zortzi urte luzez igandero-igandero (udako igandeak izan ezik) bertan izan zen soinu jotzen jazararekin batera.

Dantza sueltoan egiteko ere eskatzen zen dantza.

Dantzaren bitartez, bikote bat baino gehiago sortu zen Oialumen: *"¡De bailar difícil venía la boda,..."* komentatzen dute bertara joaten zirenak.

Soinujoleek eta musika jotzen zutenek "celestino" lanak behin baino gehiagotan egin zituzten. Manolo Amenabarrek horrela dio: *"... mutil bat baino gehiago neskena animatu nuen..."* eta geroago jakin omen zuen animatu zituen haien artean batzuk bikote modura hasi eta ezkondu ere egin zirela: zortziren bat bikote sortzen lagundu omen zuen Manolo Amenabarrek. Axentxio bera musika jole zela Oialumen sortutako bikote batzuen ezkontzetara ere joan omen zen soinu jotzera.

M. Amenabarrek beste esaldi xeblebre hau bota zigun: *"Soinujole 'dexentea' izateko dantzan jakin behar!"*

Baina, zer musika izaten zen dantzarako? Esan bezala, garai bakoitzari zegokiona. Momentuan modan zeuden piezak, baina *"todo tipo de música, más variado que ahora"*: balsak (*Palmera sube a la palma*), pasodobleak (*Si vas a Calatayud*), tangoak (*La comparsita*, *A media luz*), boleroak (*Camino verde*), foxtrota (*Amapola*), twista,... baita arin-arin eta fandangoak ere... Aipatzekoa da *La Yenka* (gero euskaraz ere kantatu izan dena) ezaguna eta arrakastatsua. Berrikuntza garaian, berriz, rockak eta gehien entzuten ziren kanteak izaten zuten beren tarteak.

Oialumen, *dantzaldi* guztietan bezala, protagonista ez zen musika soilik izaten: hara hurbiltzen zen jendeak, bertan gertatutako gorabeherak eta xeblebrekeriek zeresan ugari ematen zuten. Oialumen uholdeak, baimenik gabeko emanaldiak, apustuak... denetarik izan da. Jarraian adibide batzuk eskainiko ditugu.



Pisua jasotzeko edo altxatzeko barra, "pultsu" apustueta erabiltzen zen tramankulua.

Behin uholdengatik, bertan behera geratu zen dantzaldia: "... hura izan zen dantzaldiarik gabeko igande bakarrenetakoa" edo Barrenetxeatarrek gogoan duten bakarrenetako bat behintzat.

Beste behin, Hernaniko Udalak *bilera* egiteko baimenik eman ez eta guardia zibilak etorri eta dantzaldiari bukaera emateko esan zuten. Orduan, soinu-joleak mugaren beste aldetik (Hernani eta Astigarraga arteko muga Oialumen bertan dago) hasi ziren jotzen, Astigarragan alegia. Guardia zibilek ezer esan gabe joan behar izan zuten, Astigarragan ari baitziren soinua jotzen eta ez Hernanin. Alabaina, noizbait galarazi eta suspenditu ere egin zuten festa.

Gazteen arteko borrokak, aldiz, Oialumen bertan ez ziren izaten: "*Oialumen beti, txintxo!*". Gero gerokoak: hangoa bukatuta etxera itzultzera edo neskei lagundu ondoren...

Oilumeko festa apustu bat zela medio hasi bazen ere, gerora ere apustu gehiago egin ziren. Adibide modura, Igeldoko Etxebestek aizkoran bi lagunak kontra jokatuak edo M. Arozamenak eta P. M. Beldarrainek pisua jasotzen egindakoa aipa ditzakegu. Beldarrainek beste desafio bat ere bota zuen: ardi baten giltzurruna gordinik jan baietz; Javier Barrenetxea Oialumeko nagusiak ezetz. Jaten hasi eta bukatu ezinean zegoela edateko zerbaite eskatu zion nagusiari. Honek ez zion eman eta azkenik, apustua galdu egin zuen Beldarrainek. Behin bukatuta Javierrek nahi adina ardo eman zion.

HERNANITIK JENDE GUTXI

Gutxi ziren Oialumera joaten ziren Hernaniko gazteak: "*Hernanitik jende gutxi etortzen zen Oialumera, ... jendea batez ere Astigarraga, Lezo eta Oiartzun aldekoa izaten zen*". Hernanin, Tilosetan ere, igandero soinua izaten zen eta horrek zerikusia izango zuen hernanitarrek Oialumera joateko joerarik izan ez zezaten.

Gainera, "... *giroa baserritarra [eta euskalduna] izaten zen, eta, beraz, kaletarra ez zen hurbiltzen. Baserrietatik gehiago etortzen ziren, Oiartzun eta Astigarragatik gehienbat... [eta] Urnieta eta Andoainoak etortzen zirenak ere asko ziren*".

Hasierako urte haietan Loiolako kuarteleko soldadu ugari joaten zen Oialumera. "*Loiolako kuarteletik soldaduak ere mordoa etortzen ziren; igande arratsaldeak aprobetxatzen zituzten kuarteletik irteteko eta bertara, Oialumera, etortzeko*". Batzuek "... *petateekin etorri eta hemen aldatzen ziren... zortziak iritsitakoan, presaka uniformeak jantzi eta bueltan joaten ziren*". Beste asko aldatu ere ez ziren egiten.

Urte haietan, Goierri eta Azpeitia aldeko neska asko zegoen Donostian neskame, eta haiek ere, giroak erakarrita, hurbiltzen ziren Oialumera: "... *Donostian neskame zebilen neska gazte ugari ere etortzen zen. Neska horiek Gipuzkoako hainbat lekutatik Donostiara joaten ziren neskame lanetara; Azpeitia eta inguru horietakoak ziren asko*". Joaten ziren hauetako asko "elegante" samar jantzita azaltzen ziren eta dantza erosoago egiteko, batez ere solteko dantzak egiterakoan, zapatak kendu eta apretak bertan erosi eta gero jantzen zituzten.

Esan bezala, Oialumeko giroa guztiz euskalduna izan da beti; horren adibidea, 80ko hamarkadan jada, *Young Play* abertzalea deitu izana litzateke.

OIALUME oso txoko polita izan da dantzarako; *gazteentzat dibertigarria!* Oso lasaia...

Hernaniko herritik gertu,... Aiete aldetik, Astigarragatik,... inguratzen zen jendea; eta Loiolako kuarteletik: soldaduek igandeetan jai izaten zuten, "garita" zaindu beharrik ez, baina etxera joateko baimenik ere ez. Horrela... dantzarako, *a ze lekua!* topatu zuten: **Oialume.**

"Banuen nik 60ko hamarkadan neskame bat etxean, denetarako jarria. Jaietan ere libre izaten zuen eta Oialumera joaten zen koadrilan; hantxe aurkitu zuen mutila, bizkaitarra. 1968-1969an ezkondu eta Bizkaia aldera joan zen".

Lehen urte haietan jendea Donostia–Hernanirako tranbiaz, autobusez (orduan, 1950eko hamarkada arte, Ergobiaraino ailegatzeko zena) edo oinez hurbiltzen zen Oialumera. Baziren bizikletaz joaten zirenak ere: *"Hasierako urteetan inguru guztia bizikletaz beteta zegoen"*. Gero, motoak: *"Orduan ezaguna egin zen **el que tiene vespa, tiene neska** esaldia"*. Geroxeago hasi ziren autoak.

ZOZKETAK

Soinujoleak ordaindu ahal izateko, batez ere bateria-jotzaileak joaten hasi zirenean, errifak (garaiei arabera pezeta batekoak, 2 pezetakoak, durokoak,...) ateratzen zituzten dirua biltzeko. Normalean oilasko pare bat zozketatzen zen, inoiz untxiak edo arkumeren bat ere bai. Tabernan edariak eta ogitartekoak saltzen zituzten.


Beranduago, 1980ko hamarkadaren erdialdera terrazazpi inguruan telazko itxitura jarri eta sarrera kobratzen hasi ziren (hasieran 25 pezeta, gero... 100 pezeta); oraingoan ere helburu bera zuten: musika taldeak ordaindu ahal izatea.

ALDAKETAK

Gazteen ohiturak aldatu izanak eragina izan zuen Oialumen: ordutegia, soinujoleak edo taldeak,...

Lehenengo urteetan arratsaldeko 17:00etan hasi dantzaldia eta 21:00ak aldera amaitzen zen; gero, ohitura berriak zetozen heinean, beste ordutegi bat ezarri behar izan zen eta festa 19:30ean hasten zen, 23:00etan amaitzen zelarik.

Javier Barrenetxea, Oialume tabernako mahai batean eserita, zozketarako txartelak saltzen.



Jendearen adinari dagokionez ere aldaketak izan ziren Oialumen: *"Garaian 20 urte inguru bitarteko gazteak etortzen ziren Oialumera; gero, adin gazteagoko jendea, 15 urte inguruan zebiltzan neska-mutilak; ondoren berriz ere adin gehiago zuten gazteak, 18 urte ingurukoak..."*

Baina, batez ere, musikak jasan du berrikuntzarik nabarmenena. Garai bakoitzeko gazteek hala eskatuta, soinu-joleak, taldeak, eta... aldatu egin ziren.

Axentxio Barrenetxea bera, 18 urterekin hasi zen bateria-jotzaile moduan José Luis Ponce soinu-jolearekin. Geroxeago hiru laguneko taldea osatu zuen: organoa, tronpeta eta bateria. Segidan saxofoia ere sartu zuten, baina rock mugimenduak eraginda, tronpeta eta saxofoia berehala ordezkatu zituzten gitarra eta baxuarekin. Axentxioren taldeak hasieran *Amaia* zuen izena (*Kanario*, *Tate* eta *Lardi* zituen taldekideak), ondoren *Karraxi* eta gero *Trakets*, oraindik plazaz plaza dabilen taldea eta Oialumen bertan emanaldi gehien eman zuena.

Axentxiok gertaera hau kontatu digu: J. L. Altunerakin jotzen ari zela gazte talde batek behin eta berriro sueltoan egiteko piezak jotzeko eskatzen zien. Hainbeste tematu zirenez, azkenean kasu egin eta dantzaldia bukatuta "pieza bat" hasi ziren jotzen, ordu eta erdiko "pieza bat". Noski, bai musika-joleak, bai "dantzariak" leher eginda bukatu zuten saioa.

Asko izan dira Oialumen aritu izan diren taldeak; plazaz plaza ibiltzen ziren talde gehienak (batzuk jada eraikin berrian): Egan, Anje Duhalde, Hertzainak, Akelarre, Laiotz, Izotz, Etzakit (talde hernaniarrak Oialumen eman zuen bere lehendabiziko kontzertua eta azkenekoa ere bertan eskaini zuen 2003. urtean), eta abar luze bat. Gero gazteek bestelako taldeak eskatzen hasi ziren: *Ken 7*, *Berri Txarrak*,... *"Gazteen eskuetan geunden, beraiek ziren merkatua eta beraien gustuetara moldatu beharra geneukan eskaintza"*.



Oialumen jendea dantzan 1980ko hamarkadaren erdi aldean.

Barrenetxeatarrek 80ko hamarkadako giroa gogoratzen dute, Egan taldeak dantzalekua leporaino bete zuenean: *"... Egan taldea etorriko zela esan, eta jendea txora-txora eginda, ilusioz, egun hura noiz iritsiko zain egoten zen"*. Egia esan, taldeak ikusteko eta zuzenean entzuteko zegoen bide bakarra emanaldi haiek eskaintzen zuten; gero aukera zabaldu zen eta dantzaldietarako taldeek beherakada nabaria jasan zuten. Hori, jakina, Oialumeren kalterako izan zen.

47-48 urtetan Oialumeko terrazapea dantzarako erabili ondoren, 1990. urtean dantzaleku berria eraiki zuten ondoan, baina Astigarragan (1990eko urtarrilaren 20an inauguratu zena). *"Jende asko etortzen zen eta behar adinako azpiegiturarik ez genuenez, biltoki berria egitea erabaki genuen"*.

El que suscribe Ascensio Juan Barrenechea Aguerrezabalaga,...

EXPONE que teniendo proyecto de construir un pabellón en terrenos adosados a su casa núm. 33 de la entidad Martindégui "Cº Oyalume" para destinarlo a una sala de baile por ser insuficiente la que tiene en la misma terraza de dicho caserío,...

*Cristina Aguerrezabalaga Lete, ..., viuda de D. Javier Barrenechea Aizpurua, ...
EXPONE.*

Que desde abril de 1942 se celebra en el Barrio de Oyalume y en la temporada de Octubre a Junio, baile público en los días festivos, ... Que... fue atendido, tanto el bar como el baile, por miembros de la familia.

Que... se pretende proseguir si bien en las actuales circunstancias se hace prácticamente imposible, dado que los costos han aumentado considerablemente, como por ejemplo el conjunto musical y el mantenimiento del bar; además el número de visitantes del orden de ochocientas personas, exige una mejor atención.

Que como solución a esta situación... En un terreno psósimo (sic), ..., pretendemos instalar un cobertizo de unos cuatrocientos metros cuadrados, en el que se sitúan (sic) el bar y un altillo para el conjunto musical, de forma que la gente pueda bailar bajo cubierto.

2002-2003 urteetan gutxi gorabehera etorri zen berriro aldaketa. *"Gazteek disko-musika eskatzen ziguten. Gu saiatu ginen korrante horri aurre egiten denbora batean, baina alferrik izan zen, gazteek oso garbi baitzuten zer nahi zuten, eta azkenik tarteka disko festa antolatzen hasi ginen"*. Urtean zazpi disko festa, gehienetan jaietan edo zubietan, antolatu zituzten egoera berriari erantzun nahian (eta larunbatetan kontzertu bat edo beste ere bai): *"... bide horretan egon zitekeen... etorkizuna"*.

2009ko urtarrilaren 4an izan zen azken disko festa. Astigarragako Udalak dantzalekuak diskoteka batek bete behar dituen lege-arauak betetzera behartzen ditu; horrek intsonorizazioa eta beste hainbat baldintza eskatzen dizkie eta... *"Guk ezin dugu diskoteka batek bezala funtzionatu"*. Udalarekin akordio bat lortu nahiko lukete, ... baina Oialume, orduz geroztik, itxita dago.

Oialumeko *bilerak* ia 70 urte bete ditu eta Hernaniko, edo Hernanialdeko ohiturarik zaharrenetako bat da. Bertako arduradunek, Barrenetxeatarrek, oraindik eustea espero dute: *"Betidanik ezagutu dugu, guk hasi genuen bidaia hau, eta berarekin jarraitzea pentsatzen dugu..., guk gure lana eta ilusioa mantenduko ditugu. Honekin jaio gara, eta galtzeak min handia egingo liguke bihotzetan".*



Etzakit taldearen kontzertua, jadanik dantzaleku berria estreinatuta.



OIALUME DANTZALEKUA

Igande arratsaldero Ergobia, Astigarraga, Hernani... eta inguruko neska-mutilak Oialume dantzatokian izaten zuten hitzordua. Garai hartan gazte asko hurbiltzen ziren hara dantza egin, ligatu edo lagunekin egotera.

Normalean autobusez, oinez edo, motoa izanez gero, motoz joaten ziren dantzalekura. Orduan ez zen gaur adina ibilgailu errepideetan eta bakoitzak ahal zuen moduan moldatu behar izaten zuen lekuetara ailegatzeko.

Urte haietan festa arratsaldean izaten zen, ez baitzegoen gauean ibiltzeko ohiturarik; beraz, afaltzeko ordurako erretiratzen ziren bertara gerturatutako neska-mutilak, arratsaldeko bostetan eta gaueko bederatziak arte festa giro alaia izaten zelarik.

Neska-mutil hauei dantzatzeko gogoia eragiteko soinujole bat zegoen. Bera itsua zen eta mahai baten gainean jarritako aulkian eserita jotzen zituen bere piezak; hori nahikoa zen orduko gure gazteak anima zitezen.

Bertan taberna bat ere bazegoen eztarria freskatzeko premia sortutakoan tragoxka batekin bustitzeko. Taberna horretan ohikoa zen kaiola baten barruan oilasko edo untxiak ikustea; erriak saltzen ziren ondorengo zozketan parte hartu ahal izateko.

Lekua erreka baten ondoan zegoenez, ez zen harritzekoa tarteka eguraldi hotza tokatzea hara joandakoei, arropak ere ez ziren oraingoak bezalakoak eta.

Tabernan neskak bakarrik sartzea ondo ikusia ez zegoenez, sarritan kanpoan bakarrik geratu beharra izaten zuten. Haientzat tabernara sartzeko modu bakarra mutilen batek gonbidatzea izaten zen...

Ligatzeko garai bakoitzak bere "bitxikeriak" dituenaz, orduan ere gauza bera gertatzen zen. Normalean neskek elkarrekin egiten zuten dantzan, eta mutilak inguruan begira egoten ziren. Jarraian, mutil bikote bat gerturatzen zitzairen neskei "*Faborez?*" eskatuz eta hauen erantzuna baiezkoa bazen, neskak banandu eta bikote nahasiak osatzen zituzten. Horrela hasten ziren neska-mutilak elkarrekin hitz egiten eta,aldi berean, elkar ezagutzen.

Atsedean tartea (ordu erdikoa edo) iristean, honetaz baliatzen ziren aurrez dantzan aritutako bikoteak tabernara joan, zerbait edan eta elkarrekin berriketan aritzeko. Gauza ondo bazihoan, soinujoleak berriro lanari ekiten ziotenean dantzan segitzen zuten.

Behin joateko unea heltzen zenean, etxerako bidea hartzen zuten. Hemen bikoteek beste urrats bat eman ohi zuten: gustura bazeuden, mutilak neskari etxeraino laguntzen zion eta hortik aurrera beraiek ikusten zuten beste egun baterako hitzordua jarri ala ez.



OIALUMERI BURUZKO TAILA ERRALDOIA DAGO IKUSGAI BERTAKO TABERNAN

**Gotzon Huegun eskultoreak Oialume
dantzalekuari buruzko taila erraldoi bat egin zuen,
eta bertako tabernan ikusgai dago**

Huegunek Barrenetxea sendiak eginiko eskaerari erantzunez, Oialume dantzalekuaren historia (1990. urtera arte) eta giroa islatzen dituen egurrezko murala egin zuen; Oialume dantzalekua eta hango garai zaharrak eta bizipenak gogora ekartzeko aukera paregabea.

Urte askotako historia laburbiltzen duen dokumental bat antza du. Egileak berak zioen bezala, Oialume mitikoa izan zen eta bertako pasarteak islatzen saiatu zen. Oialume dantzatokia sortu zutenetik, Barrenetxea sendiak izan zuen bere ardura. Urte mordoa eta bizikizun ugari izan zirenez gero, oroigarri bat nahi zuten.

Intxaurrondo egurrean —berau xehetasun txikiak nabarmentzeko egokia da— eginiko muralak 2,50 x 1,10 x 0,25 neurriak ditu; markoa altzairu kortenean egina dago. Artelanak, guztira, egur eta altzairu, 250 kilo inguru pisatzen ditu.

Esan bezala, Oialumeren 47-48 urteko historia eta gertaerak islatzen ahalegindu zen G. Huegun. Oialumeko *bilera* bi zuhaitzen artean egiten zen eta horiek ere muralean daude, bakoitza alde banatan, baita lehengo etxe zaharra eta dantzaleku berria ere, bata ezkerretara eta bestea eskuinetara.

Dena biltzen da Huegunen lanean: nola sortu zen *bilera* (aipatutako apustua), baserri giroa, taberna (Barrenetxeatarren ama, *Cristina*, sukaldean eta izeba *Joanita* barran), nola saltzen ziren errifak eta zozketatzen ziren oilasko pareak, ardo kupela, Loiolako soldaduak eta Donostiako neskameak... Soinujoleak ere agertzen dira (Ramon Amenabar, soinujole itsua).

Garai modernoagoen ispilu diren irudiak ere ez dira falta: Axentxio Barrenetxea bera Trakets taldearekin, gitarra jotzaileak eta beste musikariak, euskara eta Euskal Herriaren aldeko militantziaren ikurrak... Eta azken atalean 80ko hamarkadako irudiak: sarrera kobratzen hasi zirenean, garaiko janzkerak eta orrazkerak, Euskal Herrian Euskaraz, Eguzki eta Aministiaren aldeko sinboloak...

Istorio asko... eta bukaeran izeba Joanita, dagoeneko amona dena, agertzen da istorio guztia kontatzen.

Bertako tabernan, Oialume tabernan, Barrenetxeatarrenean, jarrita (zintzilik) dago.

1943[2]ko martxoaren 19tik 1990eko urtarrilaren 20ra



Egur taila hau OIALUMEko "terraza azpi" dantzalekuari egindako omenaldia da. Dantzalekua 1943[2]. urtean sortu zen Juanantoneneako Joxe *Patasen* eta Felix *Orkolakua*ren arteko pultsu apustua aitzakiatzat hartuta. Barrenetxea familiak (Javier, Cristina eta izeba Joanita) antolatuta Markos Zubeldia soinujoleak girotu zuen apustua. Festak izan zuen harrera ikusita, igandero-igandero jarraitu zuen eta eskualdeko jende asko eta asko hurbiltzen zen baserri giro euskaldunaz gozatzeraz. Orduan abian jarritako festak 47[-48] urteko ibilbidea egin zuen.

Dantzaldiak hainbat bolada bizi izan zituen. Hasiberri hartan soinujoleek (akordeoiroleek) hartu zuten parte, besteak beste, Ramon Amenabar *soinujole itsuak*.

Eltze eta zartagin asko jartzen ziren sutan inguratzen ziren gazteentzat ogitartekoak prestatzeko. Horietako mutil asko Loiolan soldadutza egiten ari ziren eta neskak herrietatik Donostiara etorri eta tabernetan, jatetxeetan, dendetan edo etxeetan neskame zeudenak ziren. Zapatak erantzi eta apretak janzen zituzten arin-arina egiteko. Oilaskoak zozketatzen ziren eta, tarteka, arkumeren bat edo beste ere bai. Zozketa honetatik ateratako diruarekin ordaintzen zuten dantzaldia. Euriak ez zuen eragozten festa eta sarritan aterkien babesean ibiltzen ziren.

Geroago eskusoinuari bateria gehitu zioten (*jazbana*). Ondoren saxofoia, tronpeta, eta azkenik, musika tresna elektronikoak ere entzun zitezkeen, aldarri politikoak eta protesta abestiekin batera.

OIALUMEko dantzalekuak Euskal Herriko gazteak biltzen segitu zuen. Horietako batzuen gurasoek hantxe ezagutu zuten elkar. Gazte horiek, beraien festa eta aldarrikapen gogo biziaz, dantzalekuari bizirik eutsi zioten 90eko hamarkada arte. Horrek guztiak jende askoren oroimenean eta bihotzean hainbat eta hainbat une gozo eta ahaztezin itsatsita utzi ditu.

Este bajorrelieve es un homenaje al baile de "terraza azpi" que tuvo sus inicios en el bar de OIALUME en el año 1943[2], tras una apuesta de "pultsua" entre Joxe *Patas* de Juanantonenea y Felix *Orkolakua*. Organizado por la familia Barrenetxea (Javier, Cristina y la tía Joanita) el desafío fue amenizado por el acordeonista Markos Zubeldia. Vista la acogida que tuvo la fiesta, continuaron con el baile domingo tras domingo. Para disfrutar de un ambiente rural y euskaldun hasta allí se acercaron multitud de personas de toda la comarca. El baile se prolongó durante 47[-48] años.

El baile pasa por diferentes fases. En aquellos primeros años fueron sobre todo acordeonistas los que lo amenizaban, entre otros el acordeonista ciego Ramón Amenazar.

En la cocina del bar, en cazuelas y sartenes preparaban bocadillos para los jóvenes, muchos de ellos cumpliendo el servicio militar en Loyola y las neskames, chicas de la provincia que trabajaban en bares, restaurantes, tiendas o viviendas de Donostia. Estas cambiaban sus zapatos por alpargatas para bailar el arin-arín. Se sortean pollos y algún que otro cordero previa compra de boletos, que servían para financiar el baile, incluso bajo el paraguas los días de lluvia.

Pasado un tiempo, al sonido del acordeón se le unen la batería, *jazbana*, dando continuación el saxo y la trompeta. Finalmente una transformación musical trae los instrumentos eléctricos, las canciones protesta y las reivindicaciones políticas.

El baile de OIALUME siguió reuniendo a jóvenes de toda Euskal Herria, muchos de ellos hijos de aquellos matrimonios que surgieron del baile años antes, jóvenes que con sus ganas de fiesta y reivindicaciones siguieron manteniendo el baile al aire libre hasta el año 90, dejando en la memoria de multitud de personas muchos y muy gratos momentos inolvidables.

UNA GRAN TALLA SOBRE SU HISTORIA SE PUEDE APRECIAR EN OIALUME TABERNA

**El escultor Gotzon Huegun realizó una talla de grandes
dimensiones sobre Oialume,
que se puede ver en la propia taberna**

Huegun, dando respuesta a una solicitud de la familia Barrenetxea, realizó un mural en madera en el que se recogen la historia (hasta 1990) y el ambiente de Oialume; una oportunidad inmejorable para recordar los viejos tiempos y las vivencias de/en Oialume.

Resume, a modo de documental, la historia de muchos años. Como decía el propio autor, Oialume fue mítico, por lo que intentó plasmar las historias allí vividas. Desde los orígenes de Oialume la familia Barrenetxea ha sido su responsable, muchos años y muchas vivencias, y querían un recuerdo de todo ello.

